

# Getxo >MEETING<



## Otsailak 13 Ikas dezagun norberaren eta besteen akatsetik

**Norberaren eta besteen akatsetatik ikastea... ez da inoiz amaitzen.**

Ekintzaitzaren bidean, une bakoitzean, asmatzeak, desadostasunak, egoera zailak eta ikasteko gauza asko daude.

Zer atera daiteke gaizki?

Ekintzaitzaren egin daitezkeen akatsen zerrenda egin dugu, ilargirantz doan suziri baten metafora aukeratuz. Izan ere ilargirako bidaia batek eta zure enpresak egiten duen bideak uste baino antz handiagoa izan dezakete. Beste antzekotasun batzuen artean "hasierako plana versus benetako ibilbidea" dago. Urrats bakoitza kalkulatu baduzu ere -zehaztasun handiagoz edo gutxiagoz-, hau ez da bide lineal bat, normala izaten da gauza asko okertzea. Eta gauza asko uste zenuenarekiko desberdinak izatea. Hona hemen akats posibleen zerrenda, ziur horiek identifikatzeko eta "saihestu beharreko gauzak" karpetara eramateko balio duela.

- Ibilbidea gaizki kalkulatzeko.
- Iristeko (eta itzultzeko) behar den erregaia ez kalkulatzeko.
- Gaizki kudeatutako eskifaiaren bizikidetzak: agertzen diren gatazken kudeaketarik eza; azaldu gabeko motibazio desberdinak; entzuteko gai ez diren egoak; gehiegizko lehiakortasuna edo konfiantzaren falta; itxaropen desberdinak izatea eta horiek bata bestearengandik baztertzaileak izatea...; bidaiaren ikuspegi desberdina izatea eta besteen beharrei era egokian ez erantzutea...
- Gehiegi eskuordetzea, funtsezko zeregin batzuei eta zure ardurapekoei kasurik egin gabe.

- Ilargitik lurrera egin beharreko itzulera ez planifikatzea, joanean bakarrik zentratzea.
- Bidaiaren kostuak behar bezala ez kalkulatzea.
- Bidaia osorako behar diren elikagaiak ez kalkulatzea, hasieran baliabide gehiegi gastatzea.
- Kanpoko faktoreen inpaktua ez kalkulatzea, edo faktore horiek geldiarazten ez jakitea.
- Testuinguru sozioekonomikoa eta eragina izan dezaketen beste alderdi batzuk.
- Akats tekniko bat sisteman.
- Gehiegi aurrezte materialetan eta horren ondorioz ontzia behar bezain erresistentea ez izatea.
- Suziria arinegi edo beranduegi jaurtitzea, hau da, une egokia ez denean.
- Funtsezkoak diren kontuak alde batera uztea, ezjakintasunagatik, "ez dakizula ez jakiteagatik".
- Ontziak flotatzea ahalbidetzen duen potentzia egokiarekin ez bidaiatzea.

Argitara gehien atera den gaietako bat kontzientziaz elkartzearena da; hau da, ekintzailtzaren bidaia hasteko beste pertsona batzuk aukeratzen ditugunean kontuan hartu behar dugu gatazkak agertuko direla. Taldea zaintzea, behatzea, definitzea, zereginen banaketa malgutzea eta funtzioen gaitzera orekatzea izan daitezke kontuan hartu beharreko oinarritzko zutabeetako bat, bereziki arrakasta handia edo porrota gertatzen den uneetan.

Zein beste kontu ikasi dituzu urteetan zehar? Zein aplikazio diezaiokizu zure egungo enpresari?